

ERABAKIA, 2025eko MAIATZAREN 21ekoa, TRANSFERENTZIA ETA NAZIOARTEKOTZE ERREKTOREORDEARENA, ERACON 2025 AZOKAN UPV/EHUko LANGILEAK PARTE HAR DEZATEN, 2025eko MAIATZAREN 13KO TRANSFERENTZIA ETA NAZIOARTEKOTZE ERREKTOREORDEAREN ERABAKIAN AKATSEN ZUZENKETA EGITEN DUENA.

2024ko azaroaren 28ko, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordearen erabakiaren bidez, ERACON 2025 azokan parte har dezaten UPV/EHUren ikastegietako nazioarteko harremanen arloari lotutako irakasle-ikertzaileek (IRI) eta teknikariek eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuetako langileek (TEKAZEL) deialdiaren oinarriak onartzea argitaratu zen.

Erabaki horrek barneratzen duen deialdiko 1. Oinarriaren arabera ("Zenbateko Osoa"), 12.000 euro gorde ziren deialdirako, errektoreordetza horren aurrekontuaren kontura (3801 organikoa, E42 funtzionala). Era berean, deialdiaren 4. Oinarriak adierazi zuen laguntza bakoitzaren zenbatekoa ekintzak eragindako gastuei aurre egiteko erabiliko dela (biltzarrean izena ematea, segurua, bidaiak, ostalua eta mantenua), eta egonaldi bakoitzak 2.000 euroko gehieneko zenbatekoa izango duela.

Dagokion hautaketa-prozesuaren ondoren, Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordearen 2025eko otsailaren 12ko Erabakiaren bidez, ERACON 2025 deialdiko parte-hartzaileen zerrenda argitaratu zen. Bertan, 3 pertsonen eskaerak onartu ziren, hau da, gehienez 6.000 euro guztira (2.000 euro pertsonako).

Ondoren, finantzaketa erabilgarria zegoenez (6.000 euro), 2025eko maiatzaren 13an helburu bererako bigarren deialdi bat argitaratu zen. Hala ere, akats baten ondorioz, deialdirako erreserbatutako zenbatekoa 12.000 eurokoa dela argitaratu zen, lehen deialdiaren ondoren geratzen diren 6.000 euroen ordean.

Horregatik guztiatik, 2025eko maiatzaren 13ko Erabakiaren 1. Oinarrian akatsen zuzenketa bat egitea beharrezkoa jotzen da. Beraz, ditudan eskumenak erabiliz, honako hau

ERABAKI DUT:

LEHENENGOA.- Hutsen zuzenketa bat egitea, Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordearen 2025eko maiatzaren 13ko erabakiak barneratzen duen deialdiaren 1. Oinarrian. Deialdi horren bidez, UPV/EHUko langileek ERACON 2025 azokan parte har dezaten bigarren deialdia argitaratu zen.

Honako hau jartzen duen lekuan: *"1. Zenbateko osoa"*

Deialdi honetarako 12.000,00€ gorde dira errektoreordetza honetako aurrekontuen kargura (organikoa: 3801; funtzionala: E42)."

Honako hau jarri behar du: "1. Zenbateko osoa

Deialdi honetarako 6.000,00€ gorde dira errektoreordetza honetako aurrekontuen kargura (organikoa: 3801; funtzionala: E42)."

Deialdiaren gainerakoa berdin mantenduko da.

BIGARRENA.- Aurka egiteko erak

Erabaki honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta haren aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Errekurtsoen, Irizpenaren eta Sinplifikazioaren Administrazio Batzordeari, COARD/EISBAri hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Hala ere, egoki iritzitako beste edozein ere erabil dezake.

Gora jotzeko errekurtsua aurkezten denetik 3 hilabete igaro eta ebazpenik jakinarazten ez bada, ezetsizat joko da administrazioaren isiltasunagatik, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazioarekiko auzien epaitegietan.

Leioan, 2025eko maiatzaren 21ean

Gotzone Barandika Argoitia

Transferentzia eta Nazioartekotze
Errektoreordea